



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

HARRERA-PLANA

Ikasle berrien eta haien familien harrera bideratzeko jardunbideak

IKASTETXEETARAKO GIDA PRAKTIKOA

2019-2020

SARRERA: zer den eta zertarako den Harrera Plana. Hasierako gogoeta.

1. IKASLE BERRIA ETORRI AURRETIK

- 1.1. Informazioa biltzea: matrikulazio-prozedurak, ikaslearen datuak, familia-egoera ...
- 1.2. Irakasleekin eta irakasle ez diren langileekin informazioa partekatzea.
- 1.3. Harrera prestatzea ikastetxean eta ikasgelan.

2. LEHEN BILERA FAMILIAREKIN

- 2.1. Familientzako informazioa.
- 2.2. Familiei eskatuko diegun informazioa.

3. LEHEN ERABAKIEN AURREIKUSPENA

- 3.1. Zein ikasmaitan eta zein taldetan eskolatuko den.
- 3.2. Laguntzak antolatzeko irizpideak.

4. IKASTETXERA IRISTEA

- 4.1 Lehen eguna prestatzea.
- 4.2 Lehen egune(ta)ko jarduerak.

5. ESKU-HARTZEKO NORBANAKO JARDUERA PLANA (NJP)

- 5.1. Hasierako balorazio-ebaluazioa: ezaugarriak.
- 5.2. Laguntza-saioak planifikatzea.
- 5.3. Ikaskuntza prozesuaren jarraipena: ebaluazioa.

6. JARDUEREN JARRAIPENA ETA HARRERA-PLANAREN EBALUAZIOA

7. LABURPEN-TAULA

8. ERANSKINAK ETA BIBLIOGRAFIA

SARRERA

Euskal gizarteak aldaketa handiak izan ditu azken hamarkadetan, hein handi batean beste jatorri batzuetako pertsonen etorreraren ondorioz. Badakigu etorkinek zer-nolako ahaleginak egin behar dituzten hartzen duten gizarte berrira egokitzeko, ohitura eta hizkuntza berrietara, bizitza ulertzeko modu berrira, munduari begiratzeko modu berrira ...

Hala ere, paradigma inklusiboak etorri berriek egin behar duten ahaleginean barik arreta jartzen du, besteak beste, egoera berrietara egokitzeko gizarteak garatu behar dituen moduetan, gizabanako guztiei, jatorria edozein delarik ere, eskaini beharreko zerbitzu onak emateko politiketan eta herritar guztien partaidetzarako bideak bilatzean.

Errealitate berri hori ikastetxeetan ere islatu da. Ikasle berri horien kopurua urterik urtera handituz doa eta erronka handia da hezkuntza-sistemarentzat, horietako gehienak ikasturtea jada hasita dagoela etortzen baitira. Eskolak, jakitun izanik ikasle berri horiek eta familiek izugarritzko ahalegina egiten dutela gure hezkuntza-sisteman sartzean, baliabide guztiak aktibatu behar ditu, bai eta bere ahalmena, profesionaltasuna eta eskarmentua ere kalitatezko hezkuntza eta arrakasta-aukerak eskaintzeko.

Horrela, bada, eskolak errealitate berri horretara egokitu beharra du kulturarteko ikuspegia eta inklusioaren printzipioak kontuan harturik, ikasle berriei eta haien familiei harrera egiten zaienetik: oso garrantzitsua da ikasle berria eta familia ikastetxearen parte senti daitezen lortzea. Laguntza emozionala behar dute, eta, ezinbestean, harrera hutsetik harago joan behar da. Harrera ona ez da soilik lehen egunera mugatzen, eskolatzearen lehen fasea ere eman behar da.

Hainbat eremutan egindako ikerketek adierazten duten bezala, harrera on batek garrantzi handia du ikasle heldu berrien eskola-egokitzapen prozesuan; askotan, ikaslearen etorkizuneko arrakasta edo porrota ekar baitezake. Horregatik, ikastetxeek jakin behar dute eurak direla familiek izango duten elementu integratzaile garrantzitsuena, eta kontziente izanik errealitate berri batera iristea beti dela konplexua eta estresagarria, estrategiak diseinatu behar dituzte eta neurriak ezarri familiei eta ikasleei laguntzeko errealitate berrira ahalik eta ondoen egokitzen.

Gainera, urrutiko kulturetako ikasleak kasuan, hizkuntza eta kultura oso desberdinetatik datozen ikasleak badira, babestuago sentitzeko premiarekin iristen diren ikasleak izanik, harrera egitea giza eta hezkuntza-esperientzia izan daiteke ikastetxeko ikasle guztientzat. Beraz, aukera bikaina da jarrerei eta aurreiritziei buruz hausnartzeko, elkarlanean lan egiten ikasteko, enpatia lantzeko ... baita altruismoak ematen duen gogobetetzea esperimendatzeko ere; azken finean, kulturarteko gaitasuna garatzeko.

Asko izan dira azken hamarkadan eskola inklusiboa bultzatzeko eta aniztasunari erantzun egokia emateko hezkuntza sisteman hartu diren erabakiak. "2016-2020 aldirako ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana" k ere hainbat helburu eta jarduera-ildo biltzen ditu, ikasle berriei hezkuntza-harrera eta -arreta ona ematearen garrantzia ez ezik,

ikastetxeetan aniztasuna ondo kudeatzeak dakarren aberastasuna ere nabarmentzen dutenak, Heziberri 2020 hezkuntza-ereduaren markoak zehazten duen ildotik.

ZER DA ETA ZERTARAKO DA HARRERA-PLANA?

Harrera-plana protokolo bat da. Bertan jasotzen dira ikasle berri bat gure ikastetxean sartzen denean egin beharreko lan guztiak: nork eta nola erantzungo dion familiari, zer informazio emango zaion, nork eta nola lagunduko dien gure ikastetxearen funtzionamendua ulertzen ...

Harrera-plana, eragile bakoitzaren (zuzendaritza, tutorea, etab.) berariazko eginkizunak alde batera utzita, eskola-komunitate osoaren zeregina da: ikastetxeko pertsona guztiek argi izan behar dute zer egin familia batek eskola-matrikula eskatzen duen lehen unetik, nola aurre egin ikasgelan lehenengo egunari, nola lagundu ikasle berriei eskola-dinamikara egokitzeko prozesuan, etab.

Horretarako, beharrezkoa da ikasle berrien familia-egoera ezagutzea: haien bizi- eta eskola-esperientziak, hona etorri aurretik gertatu diren gorabeherak ... Ez da nahikoa jakitea beste jatorri kultural batzuetatik datozela, askotan euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituztela edo gehienak egoera sozioekonomiko zailean bizi direla ... Ikastetxeak ahalik eta informazio gehien behar du hezkuntza-arloko esku-hartzea erabaki eta antolatu ahal izateko.

Beharrezkoa da, halaber, erakunde desberdinen arteko informazio-trukea eta eragileen arteko koordinazio sistematikoa. Ikasle berri horiei eta familiei eskaintzen diegun laguntzak malgua izan behar du, eta premia berrien eta eskola-egokitzapeneko fase desberdinen arabera aldatu daiteke.

Harrera-prozesuak, bestalde, aukera ematen du beste kultura batzuek gure curriculumari egin ahal dizkioten ekarpenei buruz hausnartzeko, gure erkidegoko hizkuntzen tratamenduari buruz, gure ikasleen familia-hizkuntzen eginkizunari buruz, eta abar. Aldi berean, Gure Hezkuntza Sistema eta kulturara egokitzeari dagokionez, ikasleen kulturako zer ezaugarri izan behar d(it)ugu kontuan, gurearekin bat ez datozelako edo, aztertu behar ditugu eta erabakiak hartu. Horretarako, oso baliagarria da EHUK argitaratutako *Hizkuntza etorkinak: azterketa eta erabilera didaktikoa*¹ liburua erreferentziatzat hartzea.

Dokumentu honen bidez, ikastetxeei beren harrera-plana egiten edo eguneratzen lagundu nahi zaie, eta egiteko hori antolatzeko eta errazteko tresna batzuk eskaini. Horretarako,

¹ *Hizkuntza etorkinak: azterketa eta erabilera didaktikoa* <http://hdl.handle.net/10810/11191>

2004an argitaratutako "Harrera Plana egiteko orientabideak" dokumentua hartu da abiapuntutzat.

Haren aldean, testu honek dakartzan alderdi berritzaileen artean hiru nabarmendu daitezke:

- Ardatz kronologikoa du oinarrian. Gida praktikoa da, ez, ordea, eragile bakoitzak egin beharreko zereginen deskribapena.
- Plana bera ebaluatzeko eredu bat du.
- Erabilerari dagokionez, ikasle berriari eta haren familiari harrera egiteko prozesuaren zeregin bakoitzaren azalpenez gain, eranskinetan prozesuari buruzko informazioa eta datuak erregistratzeko txantiloia ditu.

“Hasiak egin dirudi”

Harrera modu ordenatuan eta atseginean egiten bazaie, aukera gehiago dago ikasle etorri berrien eskola-ibilbidea ondo bideratzeko. Izan ere, lehen egunak funtsezkoak dira ikasle berria ondo hartua senti dadin. Sozializazio eta egokitzapen on batek garapen pertsonal osasuntsu eta orekatua errazten du². Harrera ona izateak segurtasuna eta autoestimua ematen ditu: eskola arrakasta lortzeko ezinbesteko oinarriak.

1. IKASLE BERRIA ETORRI AURRETIK

Honako hauek egitea komeni da:

- A. Egitekoen eta arduradunen aurreikuspena.** (1. txantiloia, eranskinetan).
- B. Informazioa biltzea:** matrikulazioa, ikaslearen datu pertsonalak eta akademikoak, familia-egoera ... (2. txantiloia, eranskinetan). Batez ere, familiak edo beste estamentu batzuek ematen diguten informazioa baliatuko da.
- C. Irakasleekin eta irakasle ez diren langileekin informazioa partekatzea** ikasle etorri berriari buruz: hezkuntza-harrera eta -arreta, hizkuntzen eta beste arlo batzuen lan koordinatua, laguntza-beharrak, aurretiazko espektatibei buruzko gogoeta (gaizki-ulertuak, aurreiritziak eta abar argitzeko).
- D. Harrera prestatzea ikastetxean eta ikasgelan.** Garrantzitsua da ikaskideen interesa piztea harrera-jardueren bidez, “Ikasle– edo Talde –enbaxadorea” izendatzea ("lagun berria") eta jardueren jarraipena aurreikustea; eskolari, inguruari eta abarrei buruzko hainbat informazio duen material lagungarria prestatzea...

² ADAPTACIÓN ESCOLAR / CONOCIMIENTO DE CATALÁN. Ignasi Vila, Santiago Perera, Josep Maria Serra, Carina Siqués (Universitat de Girona) Imma Canal, Pere Mayans (Departament d’Educació).



2. LEHEN BILERA(K) FAMILIAREKIN

"Familia etorri berriek itxaropen handiak dituzte beren seme-alaben heziketan, gizartean integratzeko modurik onena dela uste baitute³ ... eta haiek izan dutena baino zorte hobea izan dezaten lortzeko bidea".

Ahal dela, ikaslearen familiarekin harremanetan jartzen saiatuko gara, matrikulari buruzko informazioa jaso bezain laster. Lehen bilera batera deituko zaie lehenbailehen (astebete inguruko epean). Komeni da prozesua ondo antolatzea.

Etorri berria den familiak ikastetxeko lehen inpresioak jasoko ditu zuzendaritza taldearen bidez. Beraz, garrantzi handia eman behar zaie hasierako kontaktu horiei. Bilera giro abegikorrean egin behar da, elkar ezagutzeko, laguntzeko eta lankidetzan aritzeko oinarriak ezarri nahi baitira. Garrantzitsua da zuzendariak edo lehen kontaktu horretaz arduratzen den pertsonak espazio atsegina antolatzea eta nahikoa denbora izatea bilera lasaia eta etenik gabea egiteko.

Une egokia da familiei eskolaren funtzionamenduaren, haiengandik espero denaren eta abarren berri emateko, baita familiaren egoerari buruzko informazioaren bat biltzeko ere. Emango diegun informazioa eta eskatuko dieguna eranskinetako 2.a eta 2.b txantiloietan jasoko dira. Gainera, komeni da lehen kontaktu hori baliatzea ikastetxeko instalazioak erakusteko: ikasgelak, gimnasioa, liburutegia, jangela, etab.

Familiarekiko lehen elkarrizketa horietan ematen den informazioak oinarrizkoa eta ulergarria izan beharko du. Familiak gaztelania ez badaki, *Dualia* telefono bidezko interpretazio zerbitzua erabiltzera jo dezake ikastetxeak.

³ Harrera Plana egiteko orientabideak (2004)

Bestalde, kontuan izan behar da familia batzuen hitzeko, keinuzko eta kulturazko kodeak oso desberdinak izan daitezkeela gure kodeen aldean, eta horrek interpretazio okerrak eragin ditzakeela. Era berean, familia-ereduek zein eskola-ereduek harrera-gizartearen egitura eta hierarkia desberdinak izan ditzakete. Beraz, hori guztia kontuan hartu behar da, alferrikako distantziaren eta gehiegizko konfiantzaren arteko oreka lortze aldera.

2.1. FAMILIEI INFORMAZIOA EMATEA

Honako informazio hau emango zaie familiei:

1. Familia-hizkuntzan idatzitako dokumentua, datu hauekin:

- O Hezkuntza-sistemari buruzko oinarrizko informazioa⁴
- O Ikastetxearen helbidea, telefonoa eta erreferentziako pertsonaren izena eta guraso-elkarteari eta ikastetxeko beste jarduera batzuei buruzko informazioa

2. Ikastetxearen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko azalpena:

- O Egutegia, ordutegiak, ikastetxeko instalazioak, etab.
- O Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, bizikidetzara-arauek, higiene-arauek, bertaratze-hutsegiteen protokoloa ...
- O Ikasketa-plana, hizkuntzak, eskolako metodologia eta ikasleei laguntzeko baliabideak, ebaluazioak, etab.
- O Ikasleentzat beharrezkoak diren jarduerak eta materialak.
- O Eskola-materialerako, testuliburu-erako eta jantokirako bekei eta laguntzei buruzko informazioa: azaldu nortzuk diren laguntza horiek jasotzen dituztenak, eta laguntza horiek izapidetzen lagundu.
- O Ikastetxeko beste zerbitzu eta jarduera batzuk: jantokia, eskolaz kanpoko jarduerak, irteerak, txangoak ...
- O Auzoko edo udaleko gizarte-zerbitzuak eta baliabideak, erreferentzia gisa balio dutenak eta ikastetxera eta gizarte-ingurunera egokitzen lagundu dezaketenak: aisialdiko erakundeak eta elkarteak, liburutegia, etab.

2.2. FAMILIEI ESKATUKO DIEGUN INFORMAZIOA

Ikasle berriaren familiarekin egiten den lehen bileran komeni da haren egoerari buruzko informazioa biltzea, ikaslearen egoera animikoaz, osasunaz eta haren ibilbide akademikoaz.

Garrantzitsua da familia ez sentitzea aztoratuta edo presionatuta dokumenturen bat ekartzen ez badute: ez behartu familia nahi ez duen edo eman ezin duen informazioa

⁴ Hezkuntza Sailaren webgunean familientzako informazioa dago, hainbat hizkuntzatan:
<http://www.euskadi.eus/euskal-hezkuntza-sistema-familiei-informazioa/web01-a2hikast/eu/>

ematera. Kontua da komunikazioa elkartrukatzeko oinarriak ezartzea, eta, horregatik, komeni da konfiantza transmititzea eta argi eta garbi azaltzea gure helburu bakarra dela semea edo alaba ezagutzea, ahalik eta hobekien lagundu ahal izateko.

Nolanahi ere, komeni da informazio hori guztia tentuz tratatzea eta bereiztea zein den konfidentziala eta zein konpartitu dezaketen gainerako profesionalek: tutorea, aholkularia-orientatzailea, hizkuntza indartzeko irakaslea, gainerako irakasleak, eskola-komunitateko kideak ...

3. LEHEN ERABAKIEN AURREIKUSPENA

Ikasle hasi berria zein mailatan eskolatu erabakitzeko orduan, printzipioz, gomendagarriena da beren adineko ikaskideekin eskolatzea. Horrek eskola-errendimenduari dagokionez espektatiba altuak izaten laguntzen du; gainera, berdinen arteko harremanak sozializazioa eta harreman-hizkuntza eskuratzea errazten du.

Beste faktore batzuk ere kontuan hartu behar dira, hala nola familia-hizkuntzan edo aldez aurreko eskolatzeko-hizkuntzan izandako ahozko ulermen- eta irakurmen maila, ikas-ohiturak, garapen ebolutiboa, lagundu lezakeen familia- eta/edo gizarte-sarea, etab. Hori guztia hasierako ebaluazioan balioetsiko da. Ebaluazio hori ohiko probetan baino, batez ere, eskola-egokitzapen prozesuaren behaketan oinarrituko da.

3.1. ESKOLATZEKO IKASMAILA ETA TALDEA

Adinaz, eskola-ohiturez, espektatibez eta abarrez gain, beste irizpide bat ere oso kontuan hartu behar da beste jatorri batzuetako ikasleen kasuan: zein taldetan aurkituko dute harrera ona, laguntza, lankidetzak, lan-giroa eta eskola-ibilbideari ekiteko laguntza-aukera gehiago?

Eskola-dinamikan sartzeari dagokionez, oso onuragarria izan daiteke lehen egunetan jatorri bereko eta ikaslearen hizkuntza dakien beste ikaslearen batekin egotea, aldez aurretik harremanak izatea familiaren batekin, familia-lagun batekin ... edo ikastetxera egokitzeko lehen fase horretan lagunduko dion ikasle-enbaxadore batekin. Nolanahi ere, talde jakin batera atxikitzeak guztiz malgua izan behar du, eta, hala badagokio, ikaslearen egokitze-prozesuaren arabera aldatu.

3.2. LAGUNTZAK ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK

Gure hezkuntza-sisteman sartu berri diren ikasleek lan-plan pertsonalizatua behar dute.

Lan-plan hori hasierako ebaluazio batetik hasi behar da. Behaketa-fase horretan, eskola-laguntzako zer neurri aktibatu behar ditugun ikusiko dugu: hizkuntza-errefortzua, beste arlo/ikasgai batzuetan indartzea, arreta emozionala, sozializazioa eta ikaskideekiko interakzioa bultzatzea. Ebaluazio horretan, gainera, ikasleek lehen hizkuntzan duten gaitasuna baloratuko da, bai testuen ulermenari eta sorkuntzari dagokienez, bai matematikarako konpetentziari dagokionez.

Esku-hartzeko laguntza eta errefortzuak jasoko dituzten ordutegiak planifikatzen hasi aurretik, zenbait datuk adieraz ditzakete zer premia dituzten eskola-egokitzapenaren lehen fasean, gutxienez:

- Daturik esanguratsuen hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunaren eskuratzeko-maila da. Bilakaera akademikoari buruzko informazioa eskola-espeditateak eta familiak emandako informazioak eman diezagukete.

Bestalde, ikastetxeak dituen baliabideak eta laguntza-neurriak baloratu behar ditugu:

- Hizkuntza indartzeko ikasgela espezifikoa, askotariko baliabideekin (liburuak, internet, askotariko manipulazio-materialak -mahai jokoak, jolasak, objektuak...-, irudi bidezko hiztegiak, ordenagailuak, horma-irudiak...).
- Hizkuntza indartzeko irakaslea.
- Hezkuntza-laguntzen antolaketa-egitura (laguntza-taldea, ordutegiak, koordinazio uneak...).
- Laguntza-programak- (Bidelaguna, PREE, Hauspoa, Kanpoko laguntzaileak...).
- Ohiko ikasgelan parte hartzea eta interakzioa bultzatzen duten metodologia inklusiboak.

4. IKASTETXERA IRISTEA

Lehen eguna oso berezia da etorri berri den ikaslearentzat: beti gogoratuko duen eguna. Dena bitxia egiten zaio: lekua, hizkuntza, kide berriak ... harrera on batek larritasun sentimendua arinduko dio. Gainera, aukera bikaina da lankideek adeitasuna adierazteko eta laguntza eskaintzeko.

4.1 PRESTAKUNTZA

Tutoreak oso zeregin garrantzitsua du ikasle etorri berrien eskolatze-prozesuan: ikasle berria eskolara joan aurretik, zenbait zeregin aurreikusi behar ditu ikastetxeko zuzendaritzarekin eta orientatzaile edo aholkulariarekin batera, hura behar bezala hartzeko (3. txantiloia, eranskinetan).

4.2 LEHEN EGUNE(TA)RAKO PROPOSAMENAK

Tutoreak aurkeztuko du ikasle berria. Oso garrantzitsua da izena ondo ahoskatzea eta behar bezala idaztea. Aurkezpenean, ikaslearen alderdi positiboak nabarmenduko ditu: egiten dakiena, hitz egiten dituen hizkuntzak... errespetuz eta ekitatez. Inoiz ez dugu pertsona bat definitu behar ez dakienagatik.

Tutorearen aurkezpenaz gain, komeni da kontuan hartzea gelako pertsona guztiak ezezagunak direla ikasle etorri berriarentzat. Garrantzitsua da ikaskideak eta haien jatorrizko lekuak aurkezteko jarduera errazak antolatzea, bi helbururekin: gelako kideak ezagutzea eta agurren eta aurkezpenen berezko hizkuntzarekin praktikatzea.

Horretarako, jarduera simple hauek antola daitezke: talde osoak eta ikasle etorri berriak ere naturaltasunez parte har dezake

- Datu pertsonalekin fitxak egin eta horma-irudi batean jarri.
- Ikasle berria animatu bere bizitzari buruzko datu gehiago ematera eta ikusi aldaketak denbora baten buruan...
- Ikaslearen jatorrizko herrialdea, hiria... mapan kokatu, eta zenbait ezaugarri garrantzitsu aipatu (gutxi ezagutzen den herrialderen bateko hiriburua ...).
- Eragiketa aljebraiko sinpleren bat ebatzi hizkuntzaren beharrik ez duena.
-

(Oharra* Atzerriko hizkuntzan baliatzen diren jarduera batzuk oso erabilgarriak litezke lehen egunetako jarduerak egiteko).

5. ESKU-HARTZEKO NORBANAKO JARDUERA PLANA (NJP)5

Esku-hartzeko Norbanako Jarduera Plana "ibilbide-orri" bat da, ikasteko premia espezifikoak dituen ikasle berriaren ikaskuntza prozesua gidatzen duena. Nolabait, egitekoak sistematizatzeko tresna da ikastetxearen eta ikaslearen inguruabarretara egokitua.

Ikastetxeak Norbanako Lan Planaren ereduak eduki behar ditu ikasle horientzat. Norbanako Jarduera Planaren lan-esparrua ikastetxearen aniztasunari arreta ematea da. Beraz, ikasle bakoitzak behar duen erantzuna planifikatuko da, printzipioz, egokitu zaion ikasgela erreferentzia nagusitzat hartuta. Proposatzen da idatziz jasotzea, gutxienez, lehenengo bi ikasturteetan egingo diren esku-hartze guztiak. Are gehiago, "2016-2020 Eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren esparruan Ikasle Etorriaren Arretarako II. Planaren" 4.1 helburuan jasotakoaren arabera, ikastetxeak ikasle horien jarraipena beste hiru ikasturtez egiteko prozedura bat aurreikusi behar du.

NJP egin eta haren jarraipenaren ardura, hasiera batean, tutoreari dagokio, baina aholkulariaren/orientatzailearen partaidetza eta jarduketa koordinatua izan beharko du, bai eta hizkuntza indartzeko irakasleena, gainerako irakasleena, irakaskuntzaz kanpoko langileena ere.

Ikasle etorri berriarentzako esku-hartze plana edo programazio pertsonalizatua familiarekin lehen bilera egiten den unean bertan hasten da.

Ikaslea ikastetxera datorren egunean hasiko da bere beharrak behatzeko fasea edo "hasierako ebaluazioa"⁶. Hasierako ebaluazioko datuak jaso ondoren (4. txantiloia, eranskinetan), ikasle berriaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesua planifikatu behar dugu.

⁵Norbanako Jarduera Plana: dokumentua eta adibide bat (<https://labur.eus/kZnIr>, <https://labur.eus/RIabW>)

⁶ Hasierako Ebaluazioa dokumentua(<https://labur.eus/VZu3S>)

Norbanako jarduera Planak malgua izan behar du eta aldatzen joan daiteke. Lan-plan pertsonalizatua aplikatzeak aukera emango du ikasleek, lehenik eta behin, zer neurri eta laguntza behar dituzten zehazteko, eskolako komunikazio-hizkuntzan komunikazio-gaitasuna garatzeko eta curriculumean pixkanaka sartzen joateko, bai eta ebaluazio-irizpideak zehazteko ere.

5.1. HASIERAKO EBALUAZIOAREN EZAUGARRIAK

Ikasle berriaren hasierako ebaluazioa funtsezkoa da hezkuntza-premiak behatu eta diagnostikatzeko, Norbanako Jarduera Planaren abiapuntua zehazteko aukera ematen baitu. Ikaslea ingurunera egokitzea eta sozializatzea baloratuko da, ikasteko ohiturei, jarrerei eta trebetasunei dagokienez. Horrekin batera, oinarrizko gaitasun akademikoak, matematikoak eta komunikaziokoak baloratuko dira.

Tutoreak eta hizkuntza indartzeko irakasleak egingo dute hasierako balorazioa aholkulariaren edo orientatzailearen laguntzarekin. Ebaluazio hori bi edo hiru astean behatuz egingo da.

5.2. HIZKUNTZA-LAGUNTZA SAIOAK PLANIFIKATZEA

Norbanako Jarduera Plana diseinatzearekin batera, oso garrantzitsua da laguntza- edo indartze-saioak ondo planifikatzea: zer eduki landu behar diren, zer indartu behar den, zer material komeni den egokitzea eta/edo aberastea – ezagunak zaizkion erreferentziekin, irudiekin, hura ulertzen lagunduko duten markatzaileekin ... –, zer metodologia erabili, etab.

Komunikatzeko eta curriculum-edukiak eskuratzeko, nolabaiteko gaitasuna behar da eskolako hizkuntzan. Hala ere, sartu berri diren ikasleak, oro har, komunikaziorako hizkuntza eskuratzeko fasean daude oraindik.

Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna garatzeko denbora luzea behar da. Ikerketa guztiak bat datoz honetan: hizkuntza akademikoari dagokionez, bertoko ikasleen parera hurbiltzeko, zazpi urtetik gora behar dira. Denbora epe horretan, ikasleak hainbat fase izango ditu, batzuetan gorabehera handiak sentituko ditu eta beste batzuetan "hizkuntza-itxura" deitu ohi dena erakutsiko du (hizkuntza ulertzeko eta erabiltzeko gaitasuna nahiko mugatua badu ere, oso oinarrizkoa, baliabideak emanda eta estrategia jakin batzuei esker, duena baino hizkuntzaren ezagutza maila altuagoa duela emango du).

Hala, bada, lehenengo bi ikasturteetan, batez ere, **harremanetarako eskolako hizkuntza ikasteko beharko dituen laguntzak programatu behar dira**. Bi ikasturte horietan ikasle etorri berriek egin dezaketen aurrerapena Hizkuntzen Europako Marko Bateratuko A1 eta A2 mailekin parekatu daiteke:

- 1. fasean (A1): etorri berri diren ikasleek oinarrizko komunikazio-gaitasuna garatuko dute, eta, aldi berean, ikaskuntzari lotutako hizkuntzaren erabileran hasierako urratsak ematen hasiko dira.
- 2. fasean (A2): batez ere, hizkuntzaren komunikazio-erabileran sakontzea da helburua, ahoz zein idatziz, eta pixkanaka eskolako testuak hobeto ulertzea eta erabiltzea.

5.2.1. PROGRAMAZIOA: HIZKUNTZA ETA EDUKIAK

Lehen esan dugun bezala, curriculum-edukiak eskuratu ahal izateko, Komunikatzeko oinarriko gaitasuna behar da eskolako hizkuntzan, baina – joan-etorriko bidaia batean bezala – curriculum-edukiek eta ikaskuntza-egoerek hizkuntza-gaitasuna aberasten dute. Beraz, helburuak eta egin beharreko zereginak programatzerakoan, curriculumeko arlo edo ikasgaien hizkuntza eta edukiak batera planifikatu beharko dira.

Hartara, hizkuntza indartzeko irakasleek programatuta izan behar dute – tutorearekin edo arloetako irakasleekin batera – zer funtzio eta adierazle linguistiko landu arlo jakin batzuetan (gaitasun komunikatiboa, matematikoa, zientifikoa ...), ahoz zein idatziz.

Ikasle etorri berrien komunikazio-gaitasunaren garapenean aurrera egiteko irizpide nagusia hizkuntza erabiltzeak izan behar du, ikasitakoaren ahozko eta idatzizko komunikazioa erraztuz. Beraz, ikaskuntza funtzionalak aurkeztea eta ikaskuntza aktiboa bultzatzea da helburua: arazoak, zalantzak, galderak planteatzea, talde-lana bultzatzea, ahozko azalpen errazak egitea ... Horretarako, ikasleek askotariko informazio-iturriak erabili behar dituzte (euren familia hizkuntzan barne), eta ikaskideekiko interakzioa bultzatzen duten jardueretan parte hartu. Gainera, ikaskuntzaren autonomia indartzeko, garrantzitsua da ezagutzen transmisioan oinarritutako metodologiak saihestea, eta horien ordez, ikasleei ikaskuntza-estrategiak irakastea, autoebaluazio-koebaluzioa eta erregulazio baliabideak, besteak beste, erabiliz.

Ikasle berriak ibilbide luzea du aurretik, eta oso jakitun da hizkuntzak garrantzi handia duela integraziorako eta eskola-arrakastarako bitarteko gisa. Horregatik, beti **espektatiba altuak transmititu** behar dizkiegu eta ikaskuntzarekiko motibazioa bultzatu behar dugu haiengan.

5.3. IKASKUNTZA-PROZESUAREN JARRAIPENA: EBALUAZIOA

Funtsezkoa da ikasle berriaren ikaskuntza-prozesuaren jarraipena egitea, batez ere ikastetxera eta gizarte-ingurunera egokitzeke lehen faseetan (bi ikasturte edo gehiago). Horregatik, tutoreak, jarraipen horren arduraduna den aldetik, koordinazio-bilerak egin behar ditu gainerako hezkuntza-eragileekin, bai ikastetxeko irakasleekin, bai kanpoko zerbitzuekin. Bilera horien helburua da aurrerapena baloratzea eta lan-metodoak, edukiak eta materialak egokitzea, bai eta beharrezko curriculum-egokitzapenak egitea ere.

Ikasle etorkinen etengabeko ebaluazioa ez da gainerakoen ebaluaziotik aldentu behar; hala ere, haren ezaugarriek ikaslearen Norbanako Jarduera Planarekin lotuago dauden tresnak eta irizpideak eskatzen dituzte. Ikasleen aurrerapenak baloratu behar ditugu, gelako gainerakoekin konparaziorik egin gabe. Esaterako, ikasle hauen kasuan beste aldagai batzuk ere baloratu beharko liriateke:

- Eskola-jarduerarekin lotutako egoera esanguratsuetan parte hartzea: entzuteko jarrera, iritziak ematea, hitz egiteko ahalegina...
- Talde-lanean inplikatzeko, ohiturak pixkanaka hartzea, erantzukizuna, autonomia progresiboa...

- Eskolara bertaratzea, etxerako lanak egitea...
- Landutako oinarrizko edukiak eskuratzea; bereziki, prozedurak eta jarrerak, hiztegia zabaltzea, ahozko eta idatzizko ekoizpenak...

Aplikatu diren tresnek Norbanako Jarduera Plana hartu behar dute erreferentziatzat:

1. **Hasierako diagnostiko-balorazioa eta lan-plana** : hasierako ebaluaziotik abiatuta, ikasle bakoitzak bere lan-plana izango du, malgua, hiru hilean behin berrikusiko dena.
2. **Hizkuntza- eta komunikazio-trebetasunak ebaluatzeko probak.**
3. **Inkestak** Ikasleak ikastetxean duen **integrazioaz**.

6. JARDUEREN JARRAIPENA ETA HARRERA PLANAREN EBALUAZIOA

Ikastetxean antolatutako Harrera Planaren egokitasun- eta eraginkortasun-mailaren inguruko informazioa jasotzea komeni da, eta, horrela, hurrengo ikasturteetarako hobekuntzak proposatu.

Ikastetxeak zehaztu behar du zein izango den Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozedura eta tresna egokiak hurrengo ikasturtean moldaketak egiteko. Ikastetxeko zuzendaritzak bideratuko du balorazio- eta berrikuspen-prozesua.

Horrez gain, ikastetxearen Urteko Memorian sartuko dira Harrera Planaren erabilera-mailaren eta ekarpen berrien azterketa eta hobekuntza-proposamenak (5. txantiloian proposatzen da informazio hori guztia eta egindako eta/edo prozesuan dauden jardueren analisisa jasotzeko).



7.HARRERA PLANA: LABURPEN TAULA

IKASLE BERRIA ETORRI AURRETIK

Informazioa biltzea: matrikulatzeko prozedurak, ikaslearen datuak, familia egoera...
Informazioa partekatzea irakasleekin eta hezkuntza-komunitatearekin.

LEHEN BILERA FAMILIAREKIN

Familientzako informazioa
Familiei eskatuko diegun informazioa

LEHEN ERABAKIEN AURREIKUSPENA

Zein ikasmaitan eta zein taldetan hasiko den
Laguntzak antolatzeko irizpideak

IKASTETXERA IRISTEAN

Lehen eguna
Harrerarako jarduerak

NORBANAKO JARDUERA PLANA

Hasierako ebaluazioa
Norbanako Jarduera Plana
Indartze saioen antolaketa
Ikaskuntza prozesuaren jarraipena (ebaluazio hezigarria)

JARDUEREN JARRAIPENA ETA HARRERA-PLANAREN EBALUAZIOA

8. ERANSKINAK ETA BIBLIOGRAFIA

1. txantiloia. EGITEKOEN ETA ARDURADUNEN BERRIKUSPENA

Egitekoak	Zuzendaritza	Tutorea	Aholkularia - Orientatzailea	HIPIa	Beste erakunde bat
Familia bilerara deitu					
Itzultzaile-interpretea baliatzeko beharra aztertu (<i>Dualia ...</i>)					
Ikasle enbaxadorea hautatu.					
Hasierako ebaluazioa egin.					

2a txantiloia. LEHEN BILERA(K) FAMILIAREKIN. DATUAK JASOTZEKO ORRIA

Ikaslearen datuak	
Izena eta abizenak	
Jaiotze data	
Familia	
Gaur egungo egoera	
Jatorria	
Dakizkien hizkuntzak	
Aurreko eskolatze datuak	
Oharrak	

2b txantiloia. FAMILIAREKIN BILERA: GIDOIA

Parte-hartzaileak:	
INFORMAZIOA	
Familiari idatziz emateko	<ul style="list-style-type: none"> ● Hezkuntza-sistemari buruzko oinarrizko informazioa (ahal bada, bere hizkuntzan) ● Ikastetxearen informazioa: telefonoa, posta elektronikoa, helbidea, zuzendariaren izena ... ● Egutegia, ordutegiak eta abar. ● Guraso-elkarteari eta ikastetxeko beste jarduera batzuei buruzko informazioa.
Familiari azaltzeko	<ul style="list-style-type: none"> ● Ikastetxeko instalazioak (erakutsi, lagundu ...) ● Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, bizikidetzara-arauek, higiena, hutsegiteen protokoloa ... ● Ikasketa-plana: curriculum, hizkuntzak, metodologiak, laguntza-neurriak, ebaluazioak ... ● Beste zerbitzu batzuk: jangela, garraioa, irteerak eta txangoak, eskolaz kanpoko jarduerak ... ● Behar diren jarduera eta material motak ● Bekak eta laguntzak ● Gizarte-zerbitzuak, ingurune baliabideak (liburutegia, aisialdia ...)
Familiari eskatzeko	<ul style="list-style-type: none"> ● Dokumentazio pertsonala ● Telefonoa, helbidea... (kontaktua ziurtatu) ● Familiari buruzko informazioa: bizi proiektua, itxaropenak... ● Aurreko eskolatzeari buruzko dokumentazioa ● Sare soziala: ingurunean egon daitezkeen laguntzak ● Osasunari buruzko gaiak: txertaketak, alergiak ● Harreman-hizkuntza familian, eskolatzeko-hizkuntza ● Ikaslearen ezaugarriei dagokienez: aurreko eskola-errendimendua, semea edo alaba zertan nabarmentzen zen, zertan den trebea, zein diren haren interes nagusiak ...

3. txantiloia. HARRERA EGITEKO JARDUERAK

Helburuak eta egin litezkeen jarduerak	Bai Ez	Zer jarduera egin da?	Balorazioa (1-5)	Oharrak, iradokizunak
- Ikasgelara etorriko den kide berriarekiko interesapiztea				
- Mapan ikasle berriaren jatorria aurkitzea, bertan informazioa, argazkiak ... jartzea.				
-Ikasle etorri berriaren hizkuntzan hitz batzuk ikastea (agurrak ...)				
- Enpatia bultzatzea				
- "Ongi Etorri hormirudia" egitea.				
- Aurkezpen-jokoak prestatzea.				
- Ikaslea – edo Talde – enbaxadorea izendatzea ("lagun berria")				
- "Lagun berria" jardueraren jarraipena aurreikustea				
...				

4. txantiloia: HASIERAKO EBALUAZIOAREN ONDORIOAK ETA LEHEN PROPOSAMENAK

Balorazioa egiteko ikasleak erabili duen hizkuntza:	
Baloratu diren alderdiak	Oharrak
Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia <ul style="list-style-type: none">• Ahozkoaren ulermena• Irakurriaren ulermena• Ahozko adierazpena• Idatzizko adierazpena	
Matematikarako konpetentzia	
Ikaslearen Integrazioa	

NORBANAKO JARDUERA PLANA EGITEKO PROPOSAMENAK

Ikasturte honetan esku-hartzeko gomendio garrantzitsuenak
--

--

Indartu eta/edo egokitu beharreko eremuak / alderdiak
--

5. txantiloia. HARRERA-PLANA: PROZESUAREN BALORAZIOA ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

5a. Burututako edota martxan diren jardueren azterketa eta balorazioa	Bai/ez	Balorazioa (1-5)	Oharrak
- Jarraitu al dira Harrera Plan honetan aurreikusitako urratsak?			
- Nola baloratzen ditugu lehen kontaktuak? - Familiarekin - Ikastetxean eta ikasgelan sartzeko lehen eguna - "Lagun berria" ikasle enbaxadoreen lana - Bere taldearekiko / ikasgelarekiko egokitzapen-maila (babestuta sentitzen da, beldurrik gabe, lagunekin/gabe ...).			
- Eskola-komunitatearen parte-hartzea – Ikaskideak, irakasleak, familiak ... – ona izan al da? Koordinaziorik egon al da? Motibagarria izan al da?			
- Jarduerak erantzun al diete ikasleen interesei eta beharrei?			
- Hasierako ebaluazio-prozesua eta egindako probak egokiak al dira?			

- Berrikuspenik beharko lukete?			
- Erabiltzen ari da Norbanako Jarduera Plana?			
...			

5b. Alderdi nuklearren balorazioa		Balorazioa (1-5)	Oharrak
Ikastetxeko Taldearen Koordinazioa	-Zuzendaritzaren lana		
	-Tutorearen lana		
	-Irakasle-taldearekin koordinatzea (aholkularia / orientatzailea, errefortzuko irakasleak, gainerako irakasleak ...)		
	- Beste eragile batzuekiko koordinazioa: irakasleak ez diren langileak, gizarte-zerbitzuak, etab.		
Familia	- Harrera		
	- Harremanak		
	- Parte-hartzea		
Ikaslea	- Harrera egokia egin zaio? Ikastetxean gustura sentitzen da?		
	-Ikastetxera eta ingurune berrira errazago egokitzeko balio izan dio?		
	-Emitza akademikoek islatzen dute Harrera Planeko jardueren eragina?		

HOBETZEKO ALDERDIAK	PROPOSAMENAK
Familiari arreta	
Lehen eguna ikastetxean	
Hasierako ebaluazioa	
Norbanako jarduera plana	
Indartze neurriak	
Ikaslearen ebaluazioari buruzko erabakiak	

BIBLIOGRAFIA

1. Ikasle Etorkinei Hezkuntza-Arreta Emateko II. Plana 2016-2020
<https://www.euskadi.eus/informazioa/ikasle-etorkinak/web01-a2hikasl/eu/>
2. Ikasle Etorkinentzat Harrera-Plana Egiteko Orientabideak 2004
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_diversid/adjuntos/17_aniztasuna_120/120006e_Pub_Ortega_acogida_inmigrante_e.pdf
3. Kulturarteko Hezkuntza (Berritzegune Nagusia):
<https://sites.google.com/site/kulturartekohezkuntza>
4. Eragiozu euskarari lagun berri. Ima Ortega, 2015:
<https://sites.google.com/site/eragiozueuskararilagunberri/hizkuntza-lantzeko-atazak>
5. -TEC -Xarxa Telemàtica Educativa de Catalunya
<http://xtec.gencat.cat/ca/projectes/alumnat-origen-estranger/alumnatnou/>
6. Ressources pour l'accueil et la scolarisation des élèves allophones nouvellement arrivés (Ministère de l'Éducation Nationale et de la Jeunesse. République Française)
<https://eduscol.education.fr/cid59114/ressources-pour-les-eana.html>
<https://eduscol.education.fr/pid28783/les-eleves-allophones-et-les-enfants-des-familles-itinerantes-et-de-voyageurs.html>